



KARTEL LEHIAKETA 2024

“Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna -2024” iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia egiten du Andoaingo Udalak.

- Lehiaketan, Gipuzkoan bizi diren eta 16 urtetik gora duten emakume guztiek parte har dezakete.
- 65 cm-ko altuera eta 31 cm-ko zabalera izango dute kartelek, eta irudia neurri horietan edo horien proportzioan aurkeztu beharko da. Guztietan, ongi nabarmendurik, ondoko testua azalduko da: “Martxoak 8 - EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA. ANDOAIN 2024”. Testu horretaz gain, ez da beste lelorik edo testurik idatziko.
- Koloretan eginda aurkeztuko dira lanak.
- Lehiakide bakoitzak, gehienez ere, hiru kartel aurkeztu ahal izango du, eta eduki eta ideari dagokionez, guztiz originalak izan beharko dute.
- Lanak aurkezteko:
 - NON: BASTERO KULTURGUNEAN
 - NOIZ: **otsailaren 15ean, osteguna**, 10:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:00etara.
 - NOLA: lan bakoitzarekin batera, gutun-azal itxi bat joango da. Gutun-azal BARRUAN, egilearen izena eta abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziko dira. Gutun-azalaren KANPOALDEAN eta KARTELAREN ATZEALDEAN egilearen adina eta aurkeztutako lanaren leloa edo izenburua.
- Epaimahaia Berdintasun Batzordeko kideek osatuko dute, herriaren aniztasun politikoa islatuz, Berdintasunean aditu batek eta plastika arloarekin zerikusia duten 2 ordezkari osatuko dute, eta bere erabakia apelaezina izango da. Erabakia prentsaren bidez jakinaraziko da, baita sari-banaketaren eguna eta ordua ere.
- Epaimahaiaren iritziz, baldin eta aurkeztutako lanen artean saria jasotzeko adina kalitate duenik ez badago, lehiaketa huts deklaratu ahal izango du. Hala balitz, epaimahaiak kartela edozein artista edo inprentari zuzenean enkargatu ahal izango dio.
- Kartela ondo inprimatzeko teknika aldetik tonalitate aldaketaren bat edo beste beharko balu, aldaketak agindu ahal izango lituzke Epaimahaiak, aldez aurretik egileari galdetuta eta bere adostasunarekin.



Andoaingo Udala

- Sari bakarra izango da, 500 eurokoa, Salkinera atxikitutako dendetan kontsumitzeko.
- Saritutako kartela Andoaingo Udalaren jabetzapean geratuko da eta nahi hainbat erreprodukzio egiteko eskubidea izango du. Erreprodukzio horiek egoki deritzon publizitate lanetan erabiltzeko ahalmena izango du udalak eta kasu horietan egileek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, ezta bestelako dirukopururik jasotzeko eskubiderik ere, sariaren zenbatekoaz gain.
- Sarituak izan ez diren lanak jasotzeko egunak hauek dira: otsailaren 26 eta 27an, 10:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:00etara, Bastero Kulturgunean. Behin epe hori iragan ondoren, egileek obrak berreskuratzeari uko egin diotela ulertuko da eta, ondorioz, batzordea bilakatuko da berauen jabe. Egun horietatik aurrera interesdunek ez dute inolako erreklamaziorik aurkezteko aukerarik izango ez eta inolako kalte-ordainik eskatzeko aukerarik ere.
- Lehiaketan parte hartzeak, oinarriok erabat onartzea dakar berekin.

Andoain, 2024ko urtarrila.